

Kutxabank Renta Fija Mixto 30, Pentsio Fondoa

Inbertsio-politika

I) PENTISIO-FONDOEI BURUZKO INFORMAZIO OROKORRA.

Pentsio Planei eta Fondoei buruzko araudiarekin bat etorrira, inbertsio-politikaren printzipioei buruzko adierazpen ulergarri bat egingo da idatziz.

Pentsio-fondoen inbertsioak, haien inbertsio-politika edozein dela ere, merkatuen gorabeheren eta balioetan inbertitzearen berezko beste arrisku batzuen mende daude. Hortaz, partaideak jakin behar du partaidetzaren kitapen-balioak goranzko nahiz beheranzko joera izan dezakeela.

Fondoen zorroaren osaera zehatua seihileko txostenetan kontsulta daiteke.

II) PENTISIO-FONDOA IDENTIFIKATZEKO DATUAK.

Kudeatzailea: KUTXABANK PENSIONES, S.A.U.

Gordailuzaina: CECABANK, S.A.

III) PENTISIO-FONDOAREN INBERTSIO-POLITIKA.

a) Fondoaren bokazioa: Errenta aldakor mistoa.

Ondarearen % 30, gehienez ere, fondoaren inbertsio-bokazioarekin bat etorrira inbertituko da, errenta aldakorrean; ondarearen gainerako zatia nagusiki inbertituko da ageriko edo eperako gordailuetan, eta errenta finko publiko edo pribatua. Unean uneko egoeraren arabera, % 2 gainditu ahal izango da errenta aldakorreko maximoa, etenik gabeko hilabeteko epean, gehienez ere.

Fondoak aurreko paragrafoan aipatutako aktibo motetikiko duen esposizioa lortzeko, inbertsio zuzenak egin ahal izango dira horietan, baita inbertsioak ere finantza-tresna eratorrietan.

b) Kudeaketa-helburua.

Fondoaren inbertsio-politikaren lehentasuna izango da partaidetzen balioari eustea eta errentagarritasun osagarri bat lortzea, inbertitzen duen merkatuek ematen dutenarekin bat etorriko dena.

c) Inbertsioak aukeratzeko eta banatzeko irizpideak.

Fondoaren inbertsioak otsailaren 20ko 304/2004 Errege Dekretuaren bidez onartutako Pentsio Planen eta Fondoaren Araudiari buruzko III. Ataleko IV. Kapituluaren adierazitako mugen menpe egongo dira.

Fondoak, gehienez ere, bere ondarearen % 5 inbertitu ahal izango du gorabidean diren herrialdeetan.

Euroa ez den beste dibisa batean izendatutako aktiboetan egindako inbertsioa ez da izango fondoaren ondarearen % 30 baino handiagoa.

Fondoak eragiketarik egin ahal izango ditu eratorrien finantza-merkatuetan negoziatutako finantza-tresna eratorriekin, zorro osoan edo haren zati batean onartutako arriskuei aurre egiteko, edo inbertsio modura, zorroa hobeto kudeatzeko. Eratorrien merkatu antolatuetan negoziatzen ez diren finantza-tresna eratorrien kasuan, helburu bakarra izango da zorroak onartutako arriskuei aurre egitea, edo errentagarritasun-helburu zehatz bat lortzea.

c.1) Errenta finkoa.

Fondoak bere ondarea, zuzenean edo zeharka, IKEn bidez inbertituko du errenta finkoko titulu publiko eta pribatuetan, barne hartuta diru-merkatuaren gordailuak eta tresnak, kotizatuak edo ez, kaudimen aitortuko jaulkitzaileek jaulkita eta, gehienbat, eurotan izendatuak.

Errenta finkoko aktiboak estrategikoki kokatuko dira, fondoaren konpromisoen izaerarekin eta iraupenarekin bat etorrira.

Fondoak inbertituko duen errenta finkoko aktiboek kreditu-kalitate handia izango dute erosteko unean (gutxienez A- ratinga) edo Espainiako Erresumarenaren berdina, hura baxuagoa izango balitz. Nolanahi ere, ondarearen % 25 inbertitu ahal izango da, gehienez ere, kreditu-kalitate ertaineko aktiboetan (BBB- arte), edo Espainiako Erresumakoarena baino hiru maila beheragokoetan (azken hori A- baino baxuagoa izango balitz); hau da, ertainean edo baxuan. Bestalde, ondarearen % 10 inbertitu ahal izango da kreditu-kalitatearen predeterminaziorik ez duten errenta finkoko aktiboetan. Fondoaren aktiboak erosi ondoren, aktiboren bat ezarritakoa baino rating baxuagoarekin kalifikatuz gero, Erakunde Kudeatzaileak azkar aztertuko ditu ratinga murriztea eragin duten baldintzak, beste finantza-hornitzaile edo beste merkatu-adierazle batzuekin egiaztatuta, eta, hala badagokio, hura saltzea edo hari eustea komeni den balioetsiko du, fondoaren ondarea ahal bezain beste babesteko.

Gehienez ere, ondarearen % 3 inbertitu ahal izango da errenta aldakorra eta errenta finkoaren alternatiba diren aktiboetan, eta, batez ere, hauetan: Hedge-Funds, Arrisku Kapitaleko Fondoak eta Higiezinaren Sektoreko Fondoak, beste aukera batzuei kalterik egin gabe.

Ez da baztertzeko erregulatutako merkatuetan negoziatzea onartu ez diren errenta finkoko balioetan inbertitzea; baldin eta, ELGAko herrialde batean gizarte-egoitza duen erakunderen batek jaulki baditu, transmisio askea mugatua ez badute, finantza-egoerak ikuskatzen badituzte, eta inbertsioaren unean auditoreak erreferentziazko azken ekitaldiaren aldeko iritzia eman badu. Kotizatu gabeko aktiboetan egindako inbertsioak ez du gaindituko Fondoaren ondarearen % 10, edo bere garaian legeak ezartzen duena, azken hori baxuagoa izanez gero.

Honako hauek ez dira aurrez ezarriko: jaulkitzaileak (publikoak edo pribatuak), baloreek kotizatzen duten herrialdeak edo merkatuak (gorabidean dauden merkatuetan inbertitu ahal izango da), errenta finkoko zorroaren batez besteko iraupena, burtsa-kapitalizazioa, sektore ekonomikoa.

c.2) Errenta aldakorra

Fondoak IKEen bidez, zuzenean edo zeharka, eta fondoaren inbertsio-bokazioarekin bat etorrita inbertitutako ondarearen % 30 mantenduko du errenta aldakorrean.

Errenta aldakorreko inbertsioa egiteko, ez dira aldeztu aurretik zehaztuko balioek kotizatzen duten herrialdeak edo merkatuak (gorabidean diren merkatuetan inbertitu ahal izango da), burtsa-kapitalizazioa eta ekonomia-sektorea.

d) Inbertsioen berezko arriskuak eta horien neurketa eta kontrola.

Merkatu-arriskua edozein motatako aktibotan inbertitzeagatik dagoen arrisku orokorra da. Aktiboen kotizazioa, batez ere, finantza-merkatuen egoeraren arabera da, baita jaulkitzaileen bilakaera ekonomikoaren arabera ere; azken horietan eragina dute bai ekonomiaren egoera orokorrak bai herrialdeen baitako baldintza politikoek eta ekonomikoek.

Inbertsioek arrisku nagusi hauek izan ditzakete:

- Merkatu-arriskua, errenta aldakorrean inbertitzeagatik. Errenta aldakorrean inbertitzearen ondorioz, fondoaren errentagarritasunak inbertitutako merkatuen aldakortasunaren eragina jasan dezake; horregatik, merkatu-arrisku handia dauka.
- Interes-tasaren arriskua. Interes-tasen gorabeherek edo aldaketek errenta finkoko aktiboen prezioari eragiten diote. Interes-tasen igoerek, oro har, negatiboki eragiten diote aktibo horien prezioari; tasen beherakadak, ordea, aktiboen prezioa igotzen dute. Errenta finkoko tituluen prezioak interes-tasen gorabeherengatik izan dezakeen aldaketa handiagoa da, haren epemuga handiagoa den heinean.
- Kreditu-arriskua. Arrisku hau sortzen da errenta finkoko aktiboen jaulkitzaileak nagusia edo interesak ordaindu ezin dituztenean.
- Likidezia-arriskua. Kapitalizazio baxuko balioetan eta/edo kontratazio-bolumen mugatuko merkatu txikietan inbertitzeak likideziaz gabe utzi ditzake inbertsioak; horrek negatiboki eragin dezake prezio-baldintzetan, eta pentsio-fondoa saltzera, erostera edo posizioa aldatzera behartuta egon daiteke.
- Aldaketa-tasaren arriskua. Euroa ez den beste dibisa batzuetan izendatutako aktiboetan inbertitzearen ondorio gisa, aldaketa-tasaren gorabeheretatik eratorritako arriskua dago.

Erakunde kudeatzaileak eta gordailuzainak, fondoaren inbertsioei eragin diezaiaketen arriskuei dagokienez, maiztasunez zainduko dute, besteak beste: Fondoaren inbertsio ratinga, merkatuen aldakortasuna, errenta finkoko aktiboen arrisku diferentzial edo spreads deitutakoen bilakaera, zorroaren iraupena, zorroaren eta haren erreferentzia-indizearen errendimendua, zorroa dibertsifikatzeko lege- eta barne-mugak, posizioen koadratzea kudeatzailearen eta gordailuzainaren artean, kudeaketa- eta gordailu-komisioen legezko mugak, eta diruzaintza-kontziliazioa.

Inbertsio-arriskuak finantza-tresna eratorrietan. Finantza-tresna eratorrietan egindako inbertsioek arrisku handiagoak dituzte eskudiruzko inbertsioek baino, haien palanka-efektuagatik; hori dela eta, bereziki sentikorrek dira erreferentzia-balioaren prezioaren aldaketekiko. Horrez gainera, eratorrien merkatu antolatuetan kontratatu ez diren finantza-tresna eratorrien eragiketek arrisku gehigarriak dituzte, hala nola kontrako alderdiak ez betetzea.

Kotizatu gabeko finantza-tresnekin eragiketak eginez gero, kontrako alderdia ospe handiko finantza-erakunde bat izango da beti, ELGAn helbideratua egongo dena, zuhurtziatzko gainbegiratzeak jasoko dituena, eta mota horretako eragiketak sarri eta profesionaltasunez egingo dituena. Fondoak beharrezkoak diren bermeak edo/eta kolateralak jasoko ditu, horri lotutako kontrapartida-arriskua guztiz edo hein batean arintzeko.

Erakunde kudeatzaileak kontrolatuko du eratorrien bidez hartutako konpromisoa inbertsio-printzipioen eta Fondoaren arrisku-profilaren barruan dagoela. Erakunde kudeatzaileak neurriak hartuko ditu finantza-tresna eratorrietako posizioek ez dezaten Fondo bere ondarea gaindituko duten galera erreal posibleen arriskupean jarri. Erakunde kudeatzaileak kontrol-prozedurak ditu horretarako.

e) Ezarritako printzipioak betetzen direla gainbegiratzea eta horien jarraipena egitea.

Higikorren balioak eta finantza-tresnak, eratorriak edo eskudirukoak izan, zorroa eraginkortasunez kudeatzeko erabiliko dira, errentagarritasun-arriskua binomioa kontuan izanda eta c) puntuan deskribatutako aktiboen hautaketa eta banaketa estrategikorako irizpideen baitan.

Erakunde kudeatzaileak prozedura egokiak ditu inbertsio-politikaren eta haren arrisku-profilen betetze-maila gainbegiratzeko.

f) Inbertsio-politikaren indarraldia.

Inbertsio-printzipioen adierazpen hau 2020ko martxoaren 20tik aurrera aplikatuko da.